



GAZTE- EKIN BIZKAIA EGITEN DBH 4.



<https://gazteak.bizkaia.eus>



ETENGABEKO IKASKUNTZA 1

GAITASUNA

Etengabeko ikaskuntza.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Arazo ebazpena, aldaketara egokitzea, sormena, ekimena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Ezagutzak eta trebetasunak modu etengabe eta iraunkorrean eskuratzeko gaitasuna bezala definitu daiteke.

HELBURUAK



- Ezagutzak etengabe eguneratzea sustatzea.
- Ingurune aldakorretara egokitzen laguntzea.
- Aldaketak onartzea balio ez duten prozesuei uko eginez (desikasten ikastea).
- Aldaketetara egokitzeko gaitasun berriak garatzea (ikasten ikastea).
- Ikaskuntza autonomia sustatzea (ikasi nahi izatea).

KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hori lortzeko, beharrezkoa izango da ikaskuntzarako joera proaktiboa izatea eta hau etengabeko premia gisa hartzea, denbora tarte laburretan ordezkari daitezkeen tresnak ezagutzeaz harago. Nork bere prestakuntza kudeatzea autoikaskuntzan oinarrituta, ikasleek ikaskuntzan autonomia lor dezaten. Bere ezaugarrietara hobekien egokitzen den ikaskuntza-estiloa zein den jakitea. Ikasteko dauden tresnak ezagutzea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenekin.



ETENGABEKO IKASKUNTZA 1

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Informazio iturriak

DESKRIBAPENA

Dinamika 4-5 pertsonako taldeak eginez planteatzen da, eta helburua gai jakin batean autoikaskuntza ahalbidetuko duten informazio-iturriak bilatzea da. Ikasleak Internetetik kanpo eta Interneten etengabe ikasteko dauden baliabide guztiez jabetzea da helburua.

Arazo jakin bat ebaztea proposatzen da eta ikasleek arazo hori ebazteko informazio iturriak eman behar dituzte. Iturriak haien fidagarritasunaren eta informazio ekarpenaren arabera antolatu beharko dituzte.

DENBORA-ESTIMAZIOA



Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Ordenagailuak.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Kantitatean lortutako emaitzak.
- Iturri fidagarriak aukeratzea.
- Informazioarekiko zentzu kritikoa.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.



ETENGABEKO IKASKUNTZA 2

GAITASUNA

Etengabeko ikaskuntza.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Arazo ebazpena, aldaketara egokitzea, sormena, ekimena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Ezagutzak eta trebetasunak modu etengabe eta iraunkorrean eskuratzeko gaitasuna bezala definitu daiteke.

HELBURUAK



- Ezagutzak etengabe eguneratzea sustatzea.
- Ingurune aldakorretara egokitzen laguntzea.
- Aldaketak onartzea balio ez duten prozesuei uko eginez (desikasten ikastea).
- Aldaketetara egokitzeko gaitasun berriak garatzea (ikasten ikastea).
- Ikaskuntza autonomia sustatzea (ikasi nahi izatea).

KURTSOA

DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hori lortzeko, beharrezkoa izango da ikaskuntzarako joera proaktiboa izatea eta hau etengabeko premia gisa hartzea, denbora tarte laburretan ordezkari daitezkeen tresnak ezagutzeaz harago. Nork bere prestakuntza kudeatzea autoikaskuntzan oinarrituta, ikasleek ikaskuntzan autonomia lor dezaten. Bere ezaugarrietara hobekien egokitzen den ikaskuntza-estiloa zein den jakitea. Ikasteko dauden tresnak ezagutzea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenekin.



ETENGABEKO IKASKUNTZA 2

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

Hau ez zait gustatzen

DESKRIBAPENA

Dinamika banaka planteatzen da eta, klase hasieran, pertsona bakoitzak orri batean jasoko ditu bere izena eta gustuko ez duen kirol bat. Aurreko datuak bete ostean, gustuko ez duen kirol horretako klub batek bere zerbitzuak kudeaketa departamentuan kontratatuko dituela esaten zaio. Ondoren, datuak, ereduak eta abar bilatu beharko dira, kirol horren arauak azpimarratuz bereziki. Ondoren, kirol horri buruz ikasitakoa azalduko dute jendaurrean.

DENBORA-ESTIMAZIOA


Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Ordenagailuak.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Iturri fidagarriak aukeratzea.
- Lortutako informazio-kopurua.
- Lortutako ezagutza.
- Informazioarekiko zentzu kritikoa.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.



ETENGABEKO IKASKUNTZA

Bizitza pertsonalean, eta batez ere, profesionalean, ez zaituzte bakarrik ikasitakoagatik aintzat hartuko; zure jarrera eta trebatzen jarraitzeko gogoia ere kontuan izango dute.

Azken batean, etengabe ikasi beharko duzu, eta hurrengo esaldiak adierazten duena gogoratu: "Jakintzak ez dauka kalterik".
Gogoan izan ezagutzak eguneratuta izateko ikasi egin beharko duzula.

Zure ikaskuntza etengabea dela esan dezakezu, jakintza etengabe sustatzen baduzu, eguneratuta, jarrera proaktiboa baldin baduzu eta eskura dituzun autoikaskuntzako tresna guztiak aprobetxatzen badituzu, zure ikaskuntza etengabea dela esan ahal izango duzu.

ZURE USTEZ, ZENBATERAINO DA BEHARREZKOA EGUNERATUTA EGOTEA ETA IKASTEN JARRAITZEA?

